

## BALOREZKO PROPOSAMENA

**Bezeroari eskainiko dioguna: alegia, zein arazo konpondu, edo behar izan aseko diogu.**

Bezeroek, gure kasuan arropa merkea erosteko nahia duten pertsonak, aukeratuko gaituzte jarduten dugun herrian (Durangon) guk eskaintzen dugun zerbitzu gutxi daudelako inguruan. Gainera, profilaren arabera ezartzen da prezioa, arazoak dituzten pertsonen prezioak moldatuz, modu honetan gure balioa kuantitatiboa izanez.

Esan bezala, alde batetik, arazoak dituzten pertsonen prezioak moldatzen dira gure enpresan, esaterako, ONGak, atzerritarak... Eta beste alde batetik, eskuragarritasuna, eskuragarritasuna ere eskaintzen dugu herritarrentzako gertu geratuz.

Guregana etortzen direnek, bigarren eskuko arropa eskuratzeko aukera dute eta honez gain, arropa guztiak haien artean denak desberdinak dira, hau da, ez ditugu kolore eta marka berdineko tailla bat baino gehiago baizik eta horrela estilo desberdinak lortuko dituzte.

